



UDAL HILERRIEN (XEMEIN, LARRUSKAIN ETA BARINAGA) ORDENANTZA

Goikoportala 3. 48270 Markina-Xemein. IFK P4807100E. Tlf.: 94 616 74 54 www.markina-xemein.eus udala@markina-xemein.eus

AURKIBIDEA

- 1. ARTIKULUA:** HELBURUA ETA APLIKATZEKO ARAUTEGIA
 - 2. ARTIKULUA:** UDAL ZERBITZUA
 - 3. ARTIKULUA:** EHORZKETA MODALITATEAK
 - 4. ARTIKULUA:** ARDURADUNA
 - 5. ARTIKULUA:** ESKAERAK ETA ESLEIPENAK
 - 6. ARTIKULUA:** EMAKIDA ETA BERE IRAUPENA
 - 7. ARTIKULUA:** KLAUSTROKO HILOBIEI APLIKAGARRI ZAIEN ARAUDIA
 - 8. ARTIKULUA:** ORDENANTZA INDARREAN SARTZEA ETA BERE IRAUNALDIA
- ERANSKINAK**



UDAL HILERRIEN (XEMEIN, LARRUSKAIN ETA BARINAGA) ORDENANTZA

Goikoportala 3. 48270 Markina-Xemein. IFK P4807100E. Tlf.: 94 616 74 54 www.markina-xemein.eus udala@markina-xemein.eus

1. ARTIKULUA **HELBURUA ETA APLIKATZEKO ARAUTEGIA**

Ordenantza honen helburua udal hilerrietako zerbitzua eskaintzeko baldintzak eta modua arautzea da.

Gehigarri gisa, osasun eta hileta araudia edota hori ordeztan edotaosatzen duen legeria aplikagarria ezarriko da.

2. ARTIKULUA **UDAL ZERBITZUA**

Markina-Xemeingo Udalak hilerri-zerbitzua eskainiko du ondoko hauen bitartez:

- Hilobien, panteoien, nitxoien eta hezurtegien esleipena.
- Gorpuak lurperatzea.
- Gorpuak lurpetik ateratzea.
- Gorpuak eta gorpuzkiak lekualdatzea.
- Hilarriak mugitzea.
- Xemeingo hilerriaren zaintza eta garbiketa.
- Obrak baimentzea.

Aipatutako zerbitzuak eskaintzeko beharrezkoak diren baliabideez hornitu beharko da Markina-Xemeingo Udala.

3. ARTIKULUA **EHORZKETA MODALITATEAK.**

Ondorengo ehorzketa modalitateak daude:

- Panteoia.
- Hilobi pribatua.
- Aldi baterako hilobien emakida, 75 urterako.
- Nitxoien emakida, 75 urterako.
- Hezurtegien emakida, 75 urterako.
- Lurperatzeen emakida, 7 urterako izango da.

4. ARTIKULUA **ARDURADUNA**

Udalak baimenduko duen pertsona izango da, soilik, hilerriaren barruan edozein objektu manipulatzeko eskubidea izango duena.

5. ARTIKULUA **ESKAERAK ETA ESLEIPENAK**

Eskatutako zerbitzua jasotzeko eskubidea eta ehorzketa-eskubidea hil aurretiazko eskaeraren bidez eskuratzen dira.



UDAL HILERRIEN (XEMEIN, LARRUSKAIN ETA BARINAGA) ORDENANTZA

Goikoportala 3. 48270 Markina-Xemein. IFK P4807100E. Tlf.: 94 616 74 54 www.markina-xemein.eus udala@markina-xemein.eus

Hilobien, nitxoan eta hezurtegien esleipena eraginkorra izango da dagokion emakida eginda, ezarritako tarifak ordainduta eta, kasuan kasu, zenbait ehorzketa modalitateetarako Ordenantza honetan ezartzen diren eskakizunak betetzen direla egiaztatuta.

6. ARTIKULUA **EMAKIDA ETA BERE IRAUPENA**

Sepulturak ez daude salgai. Izan ere, emakida bidez esleitzen diren jabari publikoko ondasunak dira (Ikusi I. Eranskina).

Ehorzketa-eskubideen emakidak emateko epeak ondorengoak dira:

- Aldi baterako hilobiak emakida bidez, 75 urterako.
- Nitxoak emakida bidez, 75 urterako.
- Hezurtegiak emakida bidez, 75 urterako.
- Lurperatzeen emakida, 7 urterako izango da.

75 urterako egindako emakidetan ziurtagiri bat emango da emakida hori egiaztatzen duena. Ehorzketa-eskubidea, aurreko artikuluetan onartzen den bezala, dagokion emakidaren erabilera mugatzen du eta Ordenantza honen eta bere aldaketen erregulazioari lotuta gelditzen da.

7. ARTIKULUA **KLAUSTROKO HILOBIEI APLIKAGARRI ZAIEN ARAUDIA**

Hilobi berriei zein lehendik daudenei ere eragiten diena. Izan ere, lehendik daudenak ere apurka-apurka, eta edozein kasutan 5 urteko gehienezko epean, araudiari egokitu beharko zaizkio.

Araudiari buruzko azalpen gisa azpimarratu behar da:

1985eko uztailan, Markina-Xemeingo Udalak Juan Angel Larrañaga Guridi arkitektoari enkargatutako proiektua ikus-onetsi zuen Euskal Herriko Arkitektoen Elkargoak. Markina-Xemeingo kanposantua handiagotzeari ekitea zuen helburu. Proiektuak, handiagotzeaz gain, barruti neoklasikoa berreskuratzeke eta kontserbatzeko proposamena ere jasotzen zuen.

Aurrez, Eusko Jaurlaritzak monumentu historiko-artistiko izendatu zuen barruti neoklasikoa, eta Larrañaga Guridi jaunak proposatutako araudiak orduko egoera ordenatzea eta egiturak jatorrizko itxura berreskuratzea zuen helburu.

Eraikina XIX mendearen erdialdera egina da, eta aurrekari bitan oinarritzen da. Horietako bataren eredu nagusia Pisako kanposantua da, haren ondotik Europa osoan erabiliko zen antolaketa duena eta *iluminazio* garaiko heriotza ulertzeko modu berrian oinarritzen zena. Besteak, berriz, greziarren eraikinak hartzen ditu adibide, eta, haietan legez, peristiloa du, alde handiengan hamar zutabek eta txikiengan sei zutabek osatua. Peristiloa, lau hormartek inguratzen dute, kanpotik horma itsu batek zarratzen dituena, eta barne klaustroa osatzen du. Hala, eraikina berorren baitara biltzen da, azpimarragarria delarik, batez ere, peristiloaren *permeabilitatea*.

Diseinu hori oinarritzat hartuta, arkitektoaren proposamenak bereziki nabarmendu zuen barruti neoklasikoko patioko hilobiek, altueran betetzen zuten lekuaren erruz, erabat aldatzen zutela eraikin motaren jatorrizko zentzua. Beraz, erabat gomendatzen zen ehorzketa horiek kentzea, berriz ere patioa eraikinaren erdigune bihurtu eta egitura osotasunean egoki ulertzeko. Salbuespen bakarra egin zen: Peñafloredako XI. Kondearen Mausoleoa. Bestelako eraikitze-mota baten garapenaren adierazle zela izan zen leku berean mantentzeko arrazoia. Izan ere, jatorrian Europako edertzapen ideiak ditu,

eta korronte erromantikotik ere badu. Gainera, eskalari erreparatzen badiogu, Mausoleo honek ez dio lehiarik egiten barruti neoklasikoari; kokalekua isolaturik dagoenez, ez ditu aldatzen konposizio arkitektonikoaren irizpide nagusiak. Beraz, onargarria dirudi dagoen lekuan bertan uztea.

Laburbilduz, gomendatzen dena patioko hilobiak kentzea da, aipatu mausoleoa izan ezik. Izan ere, hasiera batean teilatupean perimetro guztian dauden hilobietarako sarbidea patioan zehar egiteko egituratuta zegoen, eta patioan dauden ehorzketek oztopatu egiten dute. Patioko okupazioa ezingo zela epe laburrean kendu aurreikusten zenez, hilobietako inskripziodun elementu bertikalak, bai horma aldekoak, bai patiokoak, kentzeko ahalegina egiteko gomendatzen zen. Horrela, klaustroa garbi eta patiora irekita mantenduko litzateke.

Jatorrizko egoera berreskuratzeko behar-beharrezkoa da zenbait arau jasotzea, 1985ean idatzitako dokumentuak zehazten zituenak, hain zuzen ere. Orduz geroztik eta gaurdaino arau hauek aplikatuz joan dira, hein batean behintzat.

Horiek horrela, hauxe da ordenantza indarrean sartzeko denetik aurrera aplikatuko den araudia:

1. Araudi hau aplikagarri zaie Markina-Xemeingo Kanposantuko barruti neoklasikoan egingo diren obra guzti-guztiei, bai administrazioak, bai partikularrek egindakoei.

2. Obrak ezaugarri konstruktiboekin, jatorrizko eraikinaren materialen kalitatearekin eta barrutiaren eredu kontzeptualarekin bat etorriko dira, eta Jose Angel Larrañaga Guridi arkitektoak idatzitako dokumentuari lotuko zaizkio.

3. Obrak burutzeko, edozein izanda ere (gorpuak lurperatzea barne), aurrez Udalaren lizentzia eskuratu beharko da. Eskieran adierazi beharko dira obraren ezaugarriak eta arduraduna nor den. Gainera, araudian eta lizentzian zehaztutakoarekin bat ez datozen obrak bota egingo dira, eta kostuak egileak bere gain hartu beharko ditu.

4. Barruti neoklasikoan lur-emateak zuloen neurrietara egokitutako kutxetan egingo dira.

5. Hilobia estaltzeko behar diren hiru harlauzetako bata kokapenari dagokion zenbakia eramango du, bigarrenak oroitzapenezko inskripzioak hartuko ditu, eta hirugarrena garbi egongo da.

6. Ezingo da, inolaz ere, zolarriko kotatik gorako elementurik jarri edo eraiki, tartean lauburuak, gurutzeak... Klaustroko zolarriko kotatik gora jarri ahalko dira defuntuak oroitzeko aldi baterako elementuak, baina hauek ezingo zaizkio eraikinari inon finkatu. Aldi baterako oroigarri hauek ez dute inolako inskripziorik izango, eta izan ahalko dira loreak, kandelak, atrilak, jardinerak, loreontziak, argimutilak, kriseilu-ontziak, etab., eta baldintza hauek bete beharko dituzte:

- a) Hilobi bakoitzaren gainean ezingo da, inolaz ere, mota honetako elementu bat baino gehiago jarri.
- b) Ezingo da 20 cm baino zabalagoa izan, ezta 35 cm baino garaiagoa ere, eta oroitzapenezko inskripzioak daramatzan harlauzaren gainean jarriko da.
- c) Elementu hauek, erabiltzerakoan, ez diote eraikinari inon kalterik eragingo, esaterako: zutabeei, zolarriko harlauzei, hormei, etab.. Gainera, kendu egin beharko dira egoera txarrean edo ezin erabilizko egonez gero.

7. Eraikitako zatiak, oroitzapenezko elementuak eta apaingarriak egoera onean daudela eta erabilera egokia ematen zaiela ikuskatzeaz arduratuko da Udala. Araudiarekin bat ez datorren jardueraren bat antzemanaz gero erabiltzaileak jakitun jarriko ditu, eta epea emango zaie zuzentzeko. Epe hau igarota zuzentzetak egin barik baleude, egokiak ez diren elementuak kendu eta araudiarekin bat ez datozenak konpontzeari ekingo dio Udalak, gastuak erabiltzaileak bere gain hartuta.



UDAL HILERRIEN (XEMEIN, LARRUSKAIN ETA BARINAGA) ORDENANTZA

Goikoportala 3. 48270 Markina-Xemein. IFK P4807100E. Tlf.: 94 616 74 54 www.markina-xemein.eus udala@markina-xemein.eus

8. Hilobia bertan behera uzten denean, Udalaren esku geratuko da herri-jabariko ondasun gisa, eta, ordenantzak jasotzen duen argitaratze-prozedura jarraituz, nahi duenean erabili ahal izango du.

8 ARTIKULUA **ORDENANTZA INDARREAN SARTZEA ETA BERE IRAUNALDIA.**

Ordenantza behin onartuta indarrean sartuko da, indarrean dagoen araudiarekin bat etorritz eta indarrean egongo da Udalbatzak Ordenantza aldatzea edo indargabetzea erabakitzen duenera arte.



UDAL HILERRIEN (XEMEIN, LARRUSKAIN ETA BARINAGA) ORDENANTZA

Goikoportala 3. 48270 Markina-Xemein. IFK P4807100E. Tlf.: 94 616 74 54 www.markina-xemein.eus udala@markina-xemein.eus

I. ERANSKINA

TASAK

XEMEINGO HILERRIA	
Lurra ematea: Panteoian lurperatzea	405,70 euro
Lurra ematea: Hilobian lurperatzea	267,80 euro
Atzeratzea: Hilobietatik ateratzea	214,78 euro
Ateratzea: Panteoietatik ateratzea	229,90 euro
Errautsak sartzea	108,90 euro
Aldaketak: Hilerri barruan	229,90 euro
Aldaketak: Beste hilerri batetik	108,90 euro
Zulo sakonagoa egitea: Kaxa bat sartzea	205,70 euro
Zulo sakonagoa egitea: Zinkezko kaxa sartzea	108,90 euro
Bestelakoak:	
Zinkezko kaxa	78,65 euro
Harri grijoaren erdia aldatzea	15,00 euro
Harri grijoa osorik aldatzea	30,25 euro

BARINAGAKO ETA LARRUSKAINGO HILERRIAK

Ehorzketa zerbitzua	238,37 euro
Gorputz bat ateratzea	238,37 euro

Kasu batzuetan gorputz bat hilobiratzeko, lurperatuta dagoen gorputz bat atera behar izaten da. Horrelako kasuetan bi zerbitzuak beharrezkoak direnez, 476,74 euro ordaindu beharko da. Horrez gain, beste zerbitzuren bat erabiltzen bada Xemeingo hilerriko zenbatekoak ordaindu beharko dira.

HILOBIEN, PANTEOIEN ETA HEZURTEGIEN EMAKIDAK

Hilobiak:	
○ Klaustroaren kanpokoak	2.000,00 euro, 75 urterako
○ Klaustroaren barrukoak	3.000,00 euro, 75 urterako
Panteoiak (Gorputz 1)	6.000,00 euro, 75 urterako
Hezurtegiak	1.000,00 euro, 75 urterako